

ARTEAN MURGILTZEN

- **Jakintza adarra:** Arteak eta Giza Zientziak
- **Campusa:** Bizkaia
- **Ikastegi antolatzailea:** Arte Ederren Fakultatea
- **Gradua/k:** Artea
- **Garapen-lekua (helbidea):** Arte Ederren Fakultatea. Bizkaiko campusa. Sarriena auzoa z/g., Leioa (Bizkaia)

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Praktika artera metodologikoki hurbiltzean datza. Oro har, pintura, marrazketa eta argazkigintza erabiliko dira sarrera horren ardatz gisa.

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

- Argazkigintza eta argiztapena.
- Kolorea eta prozedura piktorikoak.
- Marrazkia eta prozedura grafikoak.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

A. Argazkigintza tailerra (45 minutu):

Hiru puntuko oinarrizko argiztapen-eskemari eta Rembrandten triangulu izeneko bi puntuko argiztapen-eskemari buruzko ikaskuntza. Ikasleek erretratuko argazkiak aterako dituzte Reflex kamerekin, hainbat foku erabiliz, oinarrizko argiztapena egiten ikasteko.

B. Pintura tailerra (30 minutu):

1. Pintura akriliko fabrikatuko dugu, pigmentuak eta aglutinatzailearekin nahasketa ezberdinak egiten. Sortutako koloreak paletan antolatuko ditugu (10 min).

2. Zuzeneko pintura eredu ezberdinen bitartez landuko dugu. Pinturen dimentsio ezberdinetara hurbilduko gara: hondo-figuraren erlazioa, tonua eta saturazioa (20 min).

C. Marrazketa tailerra (30 minutu):

Ikasgelan ditugun buru-hezurak motibo gisa hartuta, eta klaseko fokuz argizatuta, naturaletik helduko diegu planoaren egituran parte hartzen duten elementuei: konposaketa, argiluna eta perspektiba.

Zuzentasuna baino, eskua soltatu eta esperimentatzea izango da helburua, ordu erdi horretan pare bat marrazki behintzat egiteko (prozedura hezeaz bat, lehorraz bestea).

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordutegia	Plazak
2025-01-14	Euskara	Goizez	10:00 - 12:00	20
2025-01-14	Gaztelania	Goizez	12:00 - 14:00	20